

## GIZA MATEMATIKA I ETA II

Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoan “Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika” ikasgaiak daude. Edukiak lau multzotan banatzen dira lehenengo ikasturtean: Aritmetika eta Aljebra, Funtzioak, Estatistika eta Probabilitatea eta Problemen ebazpena; eta hiru multzotan bigarren ikasturtean: Aljebra, Analisia eta Estatistika eta Probabilitatea.

Ikasgai hauek Gizarte Zientzien eremuko problemen ebazpenean eta erabaki-hartzean erabilgarritasun nabarmena dute. Horregatik, mota honetako matematikek gizarte eta ekonomia gertakariak eztabaidatu eta aztertzeko behar diren gaitasunak garatzeko balio dute. Zentzu honetan, Estatistika eta Problemen Ebazpena, edozein motakoak delarik, oinarrizko edukiak dira.

Beraz, “Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematikek” geroz eta hizkera, eragiketa eta kontzeptu matematiko gehiago erabiltzen dituen, eta etegabeko garapenean dagoen gizartean moldatzeko beharrezko diren ezagupenak eta gaitasunak eskeini behar ditu.